

EDUKIAK:

- 1.gai: **EKUAZIO SISTEMA LINEALAK-.MATRIZEAK-DETERMINANTEAK.** (5 aste)
2. gai: **ESPAZIOAREN GEOMETRIA.** (9,5 aste)
3. gai: **FUNTZIOEN LIMITEAK. JARRAITUTASUNA, DERIBAGARRITASUNA** (8,5 aste)
4. gai: **INTEGRALAK.** (5 aste)

KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA**Mat II**

Gai bakoitzaren garapena klasean burutu ondoren, ebaluaketa proba idatzia egingo da. 3.gaian, bi proba egingo dira.

Kontrolak gaiz gai

Kontrol guztietan item guztien gehieneko puntuazioa adieraziko da. Gaia gaindituztat emateko 10 puntutatik 5 atera behar ditu.

Berreskurapena:

Gero bi asteren buruan edo, berreskurapen proba bat egingen dute gainditzeko gutxienez, 5 atera behar dutelarik. Gai bakoitzak (3.ak barne) berreskurapen bat izango du. 5. gaiarena: Ekaineko azterketa finalean izango da.

Gaiaren nota:

Kontrolen kalifikazioak ez ezik, jarrera eta euskararen erabilpena ere jokatu dute azken nota osatzeko, beti ere kontutan hartuta ikasle batek ez duela 4 baino nota altuagorik izango jarreraren E(oso txarra) kalifikazioa badu. Kasu hau kenduta, jarreraren arabera puntuazioa jaitsi ala igo daiteke (gehienez jota puntu erdi bat).

Ebaluazioko nota:

Ebaluazioa gainditzeko, ebaluazioan zehar egindako gai guztiak (bereskurapenak barne, egin badira) gaindituta izan behar ditu ikasleak. Kasu honetan, kalifikazioa, gai guztien noten batez bestekoa izanen da. Bestela nota 5 baino txikiagoa izango da.

1.deialdiko nota:

Ikasle batek gai guztiak gainditzen baditu, 1.deialdiko nota gai guztien noten batezbestekoa izanen da. Gairen bat gainditu gabe geratuz gero, maiatzean beste proba bat egiteko aukera izanen dute ikasle guztiak, gaiz gai antolatua, bere momentuan gainditu ez zituzten gai guztiak aprobatu behar dituztelarik. Pendiente dituen gai bakoitzean, gutxienez 5 atera behar du gai hori gainditzeko.

2.deialdian:

Azkeneko aukera, gainditugabekoentzat, bertan gaitegi osoari buruzko proba bakarra guztiei prestatuko zaielarik.